

Azkue antzerkigile



Patri **Urkizu Sarasua***

Musiko idazleaz aparte, gramatikalaria, hiztezigile, folklore biltzaile, eleberrigile eta antzerkigile ere izan zen eta azken arlo honetan lan hauek plazaratu zituen: Vizcaytik Bizkaira (1895), Eguzkia nora (1896), Colonia inglesa (1896), Sasi-eskola (1898), Pasa de chimbos (1898), Ortzuri (1910), Urlo (1912) eta Aitaren bildur (1917). Azkueren zarzueletan konstante bat izango da herri-kanten erabilera, hala nola kostunbrismoan ohi diren estereotipoen agertzea. 1895ean Sabino Aranak Vizcaytik Bizkaira euskal teatro nazionalaren eredutzat jo zuen.

Giltza-Hitzak: Euskal antzertia. Euskal opera.

Además de músico y escritor, Azkue también fue gramático, lexicógrafo. Investigador del folklore, novelista y autor de teatro. En este último apartado publicó los siguientes trabajos: Vizcaytik Bizkaira (1895), Eguzkia nora (1896), Colonia inglesa (1896), Sasi-eskola (1898), Pasa de Chimbos (1898), Ortzuri (1910), Urlo (1912) y Aitaren bildur (1917). La utilización de canciones populares fue una constante en Azkue, así como la aparición de estereotipos habitualmente utilizados en el costumbrismo. En 1895 Sabino Arana veía en Vizcaytik Bizkaira un modelo de teatro nacional vasco.

Palabras Clave: Teatro vasco. Opera vasca.

En plus d'être musicien et écrivain, Azkue fut également grammairien, lexicographe, chercheur dans le domaine du folklore, romancier et auteur de théâtre. Dans ce dernier domaine il a publié les oeuvres suivantes: Vizcaytik Bizkaira (1895), Eguzkia nora (1896), Colonia inglesa (1896), Sasi-eskola (1898), Pasa de chimbos (1898), Ortzuri (1910), Urlo (1912) et Aitaren bildur (1917). L'utilisation de chansons populaires fut une constante chez Azkue, ainsi que l'apparition de stéréotypes habituellement utilisés dans le genre littéraire. En 1895 Sabino Arana voyait en Vizcaytik Bizkaira un modèle de théâtre national basque.

Mots Clés: Théâtre basque. Opéra Basque

* UNED. Fac. de Filología. Pº de la Senda del Rey, 7. 28040 - Madrid

Agintari agugarriak, jaun-andreok, arrastegi-on denoi,

Neretzat benetan ohore handia da hemen zuen artean egotea. Duela urte pare bat Elantxobeko semea izan zen eta Caracaseko erbestean 1967an hil zen Andima Ibiñagabeitiaz hitzegin banuen, oraingoan herri honetan jaio zen Resurrekzion Azkuez mintzatzeraz natorkizue eta bereziki bere teatroaz, hots, zarzuela, opera eta antzerkiez.

Resurrección de Jesús María de las Nieves Azkue Aberasturi, horrelaxe ageri zaiguna Lekeitioko Andra Mariren Parrokiako bataiatuen liburuan, Jose Antonio Arana Martijak esaten dioskunez¹, Lekeition jaio zitzaigun 1864ko abuztuaren hogeita bostean, eta Bilbon zendu 1951an azaroaren 11an, duela menderdi bat, hain zuzen. Hil eta sei urtera egin zioten omenaldiko hitzaldi batean Nazario Oleagak² esaten digu adiskideek Don Resu deitzen ziotela eta guk ere errespetuari falta gabe adiskidetasunez eta labor beharrez horrelaxe ere deituko diogu aurrerantzean.

Aita, Eusebio María de los Dolores Azkue Barrundia, Lekeition jaioa zen (1813-1873), eta Lekeitioko Nautika eskolan irakasle katedraduna, musikazale handia eta poeta izan zen. Ama, Maria Karmen Aberasturi Uribarri Mundakan jaioa 1835ean. Don Resu izango zena Eusebioren hamaikagarren semea izan zen eta Karmenen hirugarrena.

Esan dugun bezala aita oso musikazalea zen eta, beraz, etxe hartan haurtzaroan hil ez ziren anai-arreba guztiek ikasi zuten piano eta solfeoa, eta euskararen maitasuna. Don Resuk berak honakoxea aitortzen digu aitaz: *Iza-teagaz batera sortu zuen nere baitan euskararako, musikarako eta Europako zaharren den gure herriaren bizitzarako bizi arteko zaletasuna.*

Amaren aldetik, aldiz, *Euskaljerriaren Yakintza* liburuen sarreran esaten zuenez, *Lankide andiena izan dodan Mari Karmen Aberasturi ta Uribarri neure ama maiteari* egindako eskaintzan, hiztegian bezalaxe oso maiz ageri ziren laburdura hauek, B-mu, alegia, Bizkaia-Mundaka eta *Zortzi-amar bat gai ez, beste mila ta bederatzireun ta larogei ta amarrak, ama, berorren ezpanetatik neure belarriera jatsiak dira*³.

Ama esan dugunez mundakarra zen, hainbat eta hainbat ixtorio, kontu eta kantu irakatsi zizkiona, iturri ezinagortua nonbait. Ezagunak izango dituzue ziuraski aitzak mundakar arrain saltzaileez idatzitako bertsoak euskara eta gaztelania nahasiz. Merezi dute entzutea grazia berezia baitute:

1. ARANA MARTIJA, J.A., 1983, *Resurrección María de Azkue*. Colección "Temas vizcaínos", nº 103-104. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaína, 11.

2. OLEAGA, N., 1957, "Azkue-ren gorazarrez egindako itzaldiak". *Euskera*, Bilbo, 7-15.

3. AZKUE, R.M., (3. ed., 1989), *Euskaljerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco*. Euskaltzaindia-Espasa Calpe, Madrid, 5.

*Para hombres sus maridos
Alper dira emonak,
Ellas son en sus casas
Andra ta gizonak,
Hombros en casa y fuera
Nagosi izateko,
Y hembras cada dos años
Sein bat egiteko⁴.*

Errespetua sorrarazten zekitenak, noski.

Resuk 1876an Nautika eskolan sartzeko azterketa burutu zuen, eta urte horretan bertan osaba Don Erramon Aberasturi untxi kapitainarekin Cartage-na, Lisboa eta Liverpool-en barrena ibili zen, baina halako batean izugarritzko ekaitz bat sortu eta pasatutakoak pasatu, itsasorako zaletasuna kendu omen zitzaion.

Batxileratoa Bilbaon amaitu zuelarik, 1881ean Gazteizko seminariora joan zen eta bertan burutuak zituen 1885. urterako Filosofia eta Teologiako estu-dioak. Garai honetan jadanik hasia zen ipuin bilketan, berak hauxe aitortzen baitigu:

Gaztetxo nintzan (hogei urte hor-hor baintuen) Seminarioko ikastaron-doko opor-egunetan, astiune batzuetan behintzat, herriaren ahotik ipuin eta irakurgai bat edo beste ikasten ari nintzanean⁵.

Gasteiztik Salamancako bidea hartu zuen eta hemen 1885-1888 urteetan Biblia, Oratoria, Patrologia eta Eskubide Kanonikoa ikasi zituen, Lekeition 1888ko Mikel deunaren egunean Meza berria eman zuelarik. Ez zituen alde batera utzi, noski, Teologia ikasketak eta 1893an Salamankan Doktore titulu-a jaso zuen.

Hona Oleagak aipatu gorazarreko hitzaldian Azkuez egiten digun erretra-toa:

Andia luzez, zabala, lerdena, sendoa, mardoa, txairoa, azal margo gorritzaduna, osasuntsua, zan izan be Azkue nik ezagutu nebanean...

Eta soinkeraz holakoa bazen, buruz,

Adimen argia, bizia, zolia zan berea. Edozein gai zala, laster eta sakon aztertuten eban eta gunera eltzen zan, atzenengo ondorenak atararik...

Oroimen harrigarritzko pertsona eta nahimen sendoaren jabe zena,

4. AZKUETARRAK, Eusebio M., 1896, *Parnasorako bidea*. Bilbon, ASTUITAR J. moldagintzan, 179.

5. ARANA MARTIJA, J.A., aip. lib., 16.

Setatsua bai, baña ez setatia; eztabaidako gaia ganoraz ta egoki azaltzen yakonean, bekian bere burua makurtuten eta bere autulagunen aburura menderatzen⁶.

Jakina da eta ezaguna nola XIX. mendea gerrez eta iraultzez beteriko mendea izan zen. Hola Errestaurazio garaian, bigarren karlistada amaitu ondoren, eta Iparraldean 1851az geroztik Anton Abbadiak antolatzen zituen Lore-Jokopak, edo berak deitzen zituen eran Koplarien Guduak, eredu gisara harturik euskal kultur mugimendu bat sortu zen, eta jada 1880. urtean Begoñan, Beran eta Donostian euskararen aldeko ospakizunak eta norlehenkak antolatzen hasi ziren.

Arturo Campionek Iruñan *Revista Euskara* (1878-1883) sortu zuen, Fermín Herranek Gasteizen *Revista de las provincias éuskaras* (1878-80), Donostian Jose Manterolak 1880an *Euskal Erria*, *Revista Vascongada*, Vicente de Aranak Bilbon, *Revista de Vizcaya* (1885-1889). Aldizkari guzti hauen sorrerek adierazten digute euskalzaletasun bat sortzen ari zela, eta Foruak galdu baziren ezin zela inolaz ere euskara galtzen utzi, eta horrela Abbadiaren etsenpluari jarraiki, ospetsuak izan ziren Bizkaia aldean Markinan 1883an, Durangon 1886an eta lurretan 1891ean, besteak beste antolatutako Euskal Jaiak.

Azkue, antza denez, eta garaiko fotografia batean ikusten dugunez, Salamanca hasi zen lehen musika konposizioak moldatzen 1884. urte inguruan, Seminarioko Abesbatza eta Orkestako zuzendari izan zen eta euskara ere hasia zen irakasten ikaskide zenbaiti.

Bere bizitzaz egindako bi oharrez Lino Akesolok⁷ egiten digun komentarioan, ikusten dugu nola 1888an Bilbaon Aureliano Galarza, probintziko diputatuaren eraginez sortutako euskal katedra Bizkaiko Instituto Provincial delakorako atera zuen, Miguel de Unamuno, Sabino Arana, Luis Itza, Madina eta beste zenbait gairidituz frogan.

Beste zenbaitetik ez bezala oposizioko araudiak agintzen zuen eran *Gran-kanton Arrantzaleak*, sorketa lana eta gramatika baten zati batzuek aurkeztu zituen.

Jadanik Salamankako garaian plaza jaso aitzin, Donostian jada katedra zeukan Jose Gaspar Oregiri aholkurik eskatu zion.

1889an *La Abeja*, revista mensual científico-literaria, hau da, literatur aldizkaria zuzenduko du bi urtez eta bertan parte hartzen hasten da euskal zenbait lan plazaratuz, hala nola, "Peru Matrak ta Pedr'anton"⁸.

6. OLEAGA, N., aip. art., 8-9.

7. AQUESOLO, Lino, 1965, "Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas", *BRSVAP*, Donostia, 35-63.

8. *La Abeja*, Bilbao, 1889-1890, I, 30-32, 54-64, 92-96, 126-128, 156-160, 188-192.

Azkuek era askotako idazlanak plazaratu zituen eta hauetarik lehena 1891ean *Euskal Izkindea, Gramática euskera*⁹ izan zen, euskaraz eta gaztelaniaz bi zutabetan idatzitako lana. Urte honetan antolatu zituen Abbadiak lurretako Lore Jokoak eta aitzakia horrekin idatzi zion Azkuek honakoa Bilbotik 1891eko urriko 5garren egunean, besteak beste:

Aitatu ta izendaturiko adizkide onegaz [Edward Spencer jauna] nire Euskal-izkindea deritsan liburua biralduko dautsut [...] Nik zuri eskiniko dau-tsutan liburua azaletik polita ta andia izanarren errai txatxarrak daukaz. [...] Gogo onaz atseginez ta pozik irakurriko neuke zuk nire liburutxo orren ganean daukazun eritsia edo ustea.

Agur, Jaungoikoak bere eskuetan euki zaiala. Zure serbitzari zintsua.

Azkueko Resurreccion Maria, abadia¹⁰.

Ez dugu ezagutzen Abbadiaren erantzuna, baina bai Dodgson euskalariak esan zuena eta Azkue berak hogeita hamar urte geroago onartzen zuena. Hona bere hitzak:

...Dodgson euskalariak irakatsita edo, nere izkuntza etzela Vascuence, Azkuence zela; eta liburu hura argitaratzeko dirua ugari eralki ta txautu izanarren, nere ikasleen artean urte batez ere enuen izkinde hura sarrarazi¹¹.

Arana Martijak kontatzen digunez, 1890ean Arriaga Antzokian Wagner-en *Lohengrin* opera ikusi eta entzun zuen eta betirako hau Azkueren musika eredu bilakatu zen.

1893an argitaratu zuen literatur lehen lana liburu gisara, eta *Bein da betiko*¹² eman zion titulua, narrazioaren ildotik dihoana, eta berak lenengo irakurgaia bezala bataiatu zuena, bizkaieraz eta lekeitieraz ere idatzia. Jarraikiko zion ere jeneroari, baina ez erabat, 1918an *Ardi galdua*¹³, eleberria gipuzkeraz moldiztegiratu baitzuen, eta plazaratu gabe utzi, bai *Latsibi*¹⁴, bai eta *Ortzuri*, azken hau oraindik argitaragabea.

Azkuek geroago banan-bana aztertuko ditugun antzerki eta opera hauek idatzi eta argitaratu zituen:

1895	<i>Vizcaytik Bizkaira</i>
1896	<i>Eguzkia nora</i>

9. AZKUE, R.M., 1891, *Euskal Izkindea. Gramática euskera*. Bilbao, J. Astui.

10. URKIZU, Patri (ed.), 1997, *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897*. Euskaltzaindia-Eusko ikaskuntza, Donostia, 40-41.

11. AZKUE, R.M., 1925, "Txukuneria", *Euskera*, Euskaltzaindia. Bilbo, 6.

12. AZKUE, R.M., 1893, Lenengo irakurgaia. *Bein da betiko*. Casa de la Misericordia. Bilbao.

13. AZKUE, R.M., 1918, *Ardi Galdua...* arteka-marteka egindako gerturudia. Jesus'en Biotzaren elaztegian, Bilbao.

14. AZKUE, R.M., *Latsibi*.

1898	<i>Sasi-eskola</i>
1898	<i>Pasa de chimbos</i>
1898	<i>Amama-iloba bi Bilbon</i>
1898	<i>La colonia inglesa</i>
1909-10	<i>Ortzuri</i>
1911-12	<i>Urlo</i>
1917	<i>Aitaren bildur</i>

Bizkaia aldean eta Bilbaon bereziki erdal antzertiak bere bitzta aberatsa bazuen ere, badirudi Donostian Marzelino Soroa, Serafin Baroja, Toribio Alzaga eta beste zenbaitek hasitako bidea, hau da, euskaraz antzeztekoa izan zuela Azkuek eredugarri, zeren hona sortu eta ia osorik berak idazten zuen *Euskalzale* (1897-99) aldizkarian zioena:

Zergaitik eztoigu egiten geure anaia gipuzkoarrak euren iaialdian egiten dabena? Biltoki edo Teatroan zer edo zertsu ager leike, Euskalerriko ekanduak eta legeak erakustekoa. Eta geldika egiazko euskaldunen ezpainai adurra edo lerdea darian-arte, erdaldunai amurruzko bitza edo aparra isuriko litzakioe¹⁵.

Oroitu behar dugu nola Durangoko Euskal Jaietan 1886ko uztailaren 27an eman zirela sariak, eta 6. sailean antzertiari egokitu zitzaiola eta epai-mahaia-
ren erabakia hau izan zela:

Oni izentauriko saria daroa Urrutiko Inchaurrek izentzat daukan lanaren egilleak, dalako bere irakustea guztiz oneragarri, mesedegarri eta eragillea euskaldun gach baga eta sotillak Amerikako leku urriñetara joateko agertu daroen egarri eta gurari bizia ill eta amatetako¹⁶.

Ameriketako Emigrazioaren gaia Azkuek urte batzuek geroxeago tratatuko zuen *Ardi galdua* eleberrian, baina 1895ean eskola gaiari heldu zion erezi-irautsisa, edo zarzuela batekin, hau da, *Vizcaytik Bizkaira*¹⁷ obrarekin. Pezeta t'erdian, edo sei errrialetan saldu zen Libretoaren sarreran kontatzen digunez, *Bilboko Iturribide-kalian, Nekazalien Batzokidsa deritxon Etxe on mesedetsu baten dsaidso zan ene ezgauzatsu au*.

Bere aitari dedikatua dago, eta jada bigarren agerraldian ageri zaizkigu, alde batetik herri kantak eta bestetik Eusebioren bertso batzuek musikatuak, non ageri den beti marinelen nahia, alegia, itsasoan arrantza ona izan eta gero

*betoz guztixak osasunagaz
eta ñor bere ez gaixorik. (17.or.)*

15. AZKUE, R.M., *Euskalzale*, Bilbao, 1897. irailaren 16an.

16. Euskal-Erria, T. XVI, Donostia, 1887, 538.

17. *Vizcaytik Bizkaira* R. M. Azkuetar abadiak Beren Aita zanan gomutagarritzat iru ataletan egiñiko erezi-irautsidsa. Bilbon, 1895, Astuitar J.

Herri-kanten erabilera Azkueren zarzueletan konstante bat izango da, eta zortzi peseta balio zuen Dotesiok argitaratu partituran, non deitzen zaion, *Zarzueta euskaldun en tres actos*. Kantak honakoak dira:

Lehen ekitaldia: *Urra labiru, Arrantzaliak, Ene seme laztantxua, eta Ai Petratxu*.

Bigarren ekitaldia: *Buenos seamos, Bolero, Canción del Txindorri eta Euskaldunak*.

Hirugarren ekitaldia: *Bizi beite Bizkaixa, Arrantzalia gora, Matzari mintzartian, eta Gernikako arbola*.

Azkuek hain modan zeuden kostumbrismoaren estereotipoak erabili zituen, eta beste zarzueletan bezala hasieratik ikuslego zabal bat bilatu zuen, eta hauek bezala herri literaturako gai propioez eta obrak melodrama ohizkoak bilakatzen zituzten antzez-elementuez baliatu zen, horrela agertokia tribuna politikoa gisa eraldatzen zen¹⁸.

Beraz, ikusiz nola XIX. mendean euskal giroa eta euskara galtzen zihoazten hiru kausa nagusiak, heziketa, soldaduxka eta elekkzioak zirela, hauei lotuko zaie modu kritikoa. Hots, maisu, politikari eta sasi letratuaren aldetik herri xumeak pairatzen dituen gehiegikeria eta mespretxuak, zein mirua eta txindorriaren irudiaz argitzen duen hitz hauekin:

*Miru erpedun txori-jalea,
arren lagaiok baketan
Gernikan dagon txindorriari
geure legea kantetan.*

Euskara eta gaztelania nahasiz dihoanez zarzuela, hona bukaerako hitzak, Gernikako arbolarekin bukatu baino lehen:

Ayuntamientos de Bizkaia y de todo el país euskaldun: dejad las escuelas y los maisus para los hijos de los carabineros; y cread ikastegis e irakasles para vuestros hijos. [...] (hoy) es día de gozo para Bizkaia porque siquiera unos días estará cerrada esa escuela, patíbulo, como todas, de nuestro hermoso euskera, y por lo general, sala de vacunación en que nuestros hijos degeneran de euskaldunes en cualquier cosa. [78. or.]

Sabino Aranak *Bizkaitarra* aldizkarian obra hau laburtu eta artikulua luzeak idatzi zituen komentatuz, eta, bai Iparraldean bai Gipuzkoan egiten zen antzertia ahantziz euskal antzerti nazionalaren sorrera bezala kontsideratu eta goraiatu zuen.

18. RUBIO JIMÉNEZ, J., 1988, "Melodrama y teatro político en el siglo XIX. El escenario como tribuna política", *Castilla*, 14, 124-149.

Antonio Elorza kritikariak, aldiz, obraren azterketa egin ondoren honakoa zioen:

Con independencia de la línea seguida posteriormente por Azkue y por otros precursores literarios del nacionalismo político Vizcaytik Bizkaira marca el lugar de conciliación entre el arcaísmo y el ruralismo dominantes en la literatura vasca de la segunda mitad del siglo XIX y las exigencias políticas de un movimiento que ha de utilizarlos como contrapunto del sistema de conflictos que por un momento parecen protagonizar las fuerzas sociales - capital monopolista y proletariado - creadas por el proceso de industrialización y protagonistas del mismo¹⁹.

Garbi dago Elorzak ez duela ezagutzen euskal literatura sakonki, zeren ezin baitaiteke XIX. mendeko bigarren partean sortutako guztia arkaismoa eta ruralismoaren etiketa barnean, ez eta esan *dominantes* izan zirela, hor baitaude, adibidez, Serafin Baroja eta Euskal Erria aldizkariaren inguruko idazleak, hala nola bertso paper liberalak, zein kopuruz gainera karlistenak baino ugariagoak ziren. Serafinek bertsoez aparte Santesteban musikagileaz lagundurik 1879an *Pudente* opera ere antzetzarazi zuen, eta hau 1885ean Inauteri astelehenean, hots, astelenitan tolosarrek dioten bezala aurkeztu zen berriro. Beraz, Azkuek 1895eko azaroaren 2an *Vizcaytik Bizkaira* estrenatu baino hamar urte pasatxo lehenago.

1896an *Eguzkia nora* bi ekitaldiko zarzuelatxoa . Errefrau zaharrak dioten eran, *Eguzkia nora zapiak hara*, bada, politikan haizeak jotzen duenera moldatzen diren txaketero deituez ari zaigu.

*Sasi-eskola*²⁰ 1898an argitaratu arren 1897an estreinatu zuen martxoaren batean, *Jardines* kaleko Euskaldun Biltoki nagusian, eta atal edo ekitaldi bateko umeentzako zarzuelatxoa da, sei agerraldi sinplez eratu.

Gaia, eskoletan euskararen erabilera zigortzeko erabili ohi zen *anillo* dixoso hari buruzkoa. Hona Patxiren bakarrizketaren zatitxo bat:

Ai Erramon, Erramon, ederra egin daustak. Neuk euskeraz egitearren ak egin eustan egitekoa! Un nido tengo! erderaz esan eustan, un nido más hermoso! ¿De qué? itandu neutsan nik; eta berak De esos pájaros negros...¿cómo es pues? ¿cómo es pues? Eta nik, kirten onek, zozoak esan neutsan kokolo bat egiñik. Eta berak orduan tómate anillo esan, da anilloa emon eustan.

Dena den, azken agerraldian Koipetxuk ematen du soluziobidea hitz hauen bitartez:

Beti anilloa. berak daukaz gure asarre guztien erruak. Zeuek nai izan ezkeru, maisu erdaldun orrek eztausku galerazoko euskeraz egitea. Mutil

19. ELORZA, A., 1978, "Sobre los orígenes literarios del nacionalismo", *Saioak*, 2, Donostia, 95.

20. *Sasi-eskola*. Atal bateko eresi-irautsi umeentzakoa. Euskaltzale, Bilbao, 1898.

bati anilloa emoten dautsanean, erre kara jautigi daiala; ta beste bat emonezker o, erre kara a bere; ta beste bat emonezker o, a ere bai. Lenengotan guztiai ederrak emongo dauskuz sarteagaz, baiña gero maisuak eztau euki-ko anillo geiago erosteko dirurik; eta euskeraz gura-aiña egingo dugu. Jautigiko dogu erre kara neuk daukadana?

- Bai, erre kara.

Erantzuten dute guztiek eta ohi bezala zarzuelatxo ttipitxo hau kanta batekin bukatzen da. Aski arrakasta izan zuen honek ere, zeren Julio de Urkijoren liburutegian aurkitu dugu obra beraren eskuzkribu bat, *apuntador* delako batek egin eta gipuzkeraz itzulia.

1898ko aratuzteetan, inauterietan edo karnabaletan, hots, otsailaren 20an antzeztu zuten beste zarzuela elebiduna, eta bi ekitalditan, *Pasa de Chimbos*²¹. Aiko, Euskalzaleko aurkezleak esaten digunez, bertan aurkezten da herriz-herri meza eta beste eginkizunetan dabilen abesbatza, zein heldu den Lariz deritzan herrira *Vizcaytik Bizkaira* antzeztera eta hori egitearren herriko indar faktikoen aldetik aurkitzen dituzten eragozpen, oztopo eta trabak agertzen zaizkigu.

Obra honetan ematen diren kantak hauexek dira:

Lehen ekitaldia: *Nik banitun galtzerdiak, Ave Maris stellae, Jesusen biotzari, neska dantzea.*

Bigarren ekitaldia: *Bazkari onek piztu lezake, Aloñako artzaia, maiganeko triskea (Orra or goiko ariztitsu baten kukuak umeak egin ioazak aurt...), Goizaldeko loa.*

Jolas-irudi hau bukatzen da noski goizaldeko loaren gorazarre batekin. Libreto eta musika bost pezetatan saldu zen eta bazen harpidedun mordoxka (92) aski interesgarririk, hala nola Orfeoi donostiarra, Pierre Broussain, eta euskal mezenas bi: Julio de Urquijo eta Ramon de la Sota, bakoitzak bost suskripzioekin.

Amama-iloba Bi Bilbon (Euskalzale, 1898) izeneko antzerkitxo "Artatxori" ezizenez sinatua, uste dugu ere berea dela. Hemen bi baserritar agertzen zaizkigu Bilbaora jaitsirik, *ortuaria* edo *vendajea* eta beste barazkiak saltzera etorriak, baina bertan ageri da ere nabarmen-nabarmen euskalzaletasunak kilikaturik idatzi zuela jolas-iruditxo hura, zeren besteen artean bertso hau ezartzen du:

*Gura badogu ekarritea
Gure asaben legeak,
Danok biogu gogotik izan
Betiko euskalzaleak.*

21. *Pasa de Chimbos*, zarzuela en dos actos, por R.M. de Azkue. Bilbao, Euskalzale, 1898.

Azkuek bere obrez aparte badakigu argitaratu zituela beste zenbaiten lanak, hala nola bere aitaren poemak, *Parnasorako bidea* (1896), Pedro Antonio Añibarroren *Eskuliburua* (1897), Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* (1899), eta *Euskalzale* aldizkarian plazaratuko du Pedro Ignazio Barrutiak idatzitako *Acto para la Nochebuena*, hegoaldean idatzi ziren antzerkietarik ezagutzen dugun lehen euskal testua.

Alfontso Irigoienek²² eman zituen bi gutun Juan Karlos Gerrak Azkueri bidalitakoak, non esaten zion aurkitua izan zela testu hura Miguel de Viguri-
ren etxean, eta ea juzkatzen zuen duin *Euskalzale*-n plazaratzeko, - *aunque sea expurgada de sus escandalosos erderazkoz*. Noski, moldiztegitatu zuen deusere aldatu gabe, soilik bi hizkuntzatan emanez titulua, hau da, *Gabonetako ikuskizuna* erantsiz.

Azkueren lanerako gaitasuna ezaguna dugu, eta horren ondorio bezala jo dezakegu bere hiru hizkuntzetako Hiztegia, hau da, *Diccionario vasco-español-francés*, Toursen argitaratua, urte bi t'ardi iragan ondoren moldiztegitiko frogak zuzentzen, 1905-1906 urteetan. Gizon bakar batek halako lana ezin egina zena, berak burutu ahal izan zuen, Pierre Broussain-ek eta Louis Chollet olerkariak frantses itzulpenean lagundu ziotelarik. Honen aurrean Schuchardt hizkuntzalari handiak oihukatu zuen: *Exegisti monumentum*. Hau bai dela erakitzea monumentu bat!

Baina Azkueren afizioak batez ere musika aldetik zihoazen eta hor aurkitzen dugu 1905ean Parisen beste bi euskal gazteekin apopilo etxe berean musika ikastaro batera joanez. Beste bi ikasle-musikariak ez dira nornahi: Jose María Usandizaga eta Jesus Guridi baitira. Rue Saint Jacques 269an bizi dira.

Geroxeago Bruselera joango da beste ikastaro bat egitera 1906-1907. urteetan, baina Don Resuren helburua Alemania da, eta Kolnera joango da Stratesserr-ekin harmonia eta kontrapuntua ikastera. Eta Kolnen bertan izan zuen hainbeste maite zuen Wagnerren opera batzuek entzun eta ikusteko aukera: *Walkiria*, *Rhingo urrea*, *Sigfrido*, *Jainkoen ilunabarra*, *Tristan eta Isolda*. Baita ere Mozart, Verdi, Auber, Mascagni eta beste zenbait musikariren lanak dastatu ahal izan zituen.

Ondorioz zenbait lan sinfoniko, oratorio eta opera moldatu zituen, hala nola *Daniel* 1907an, *Andra Urraka* 1909an, *Ortzuri* (1909-10) eta *Urlo* (1911-12). Goazen, beraz, mintzatzera azken bi opera hauetaz.

*Ortzuri*²³, hiru ataletan egindako opera, bere adiskide maite Urquijo anaiei zuzendua dago eta bi hizkuntzatan plazaratua, alegia, euskaraz eta gaztela-

22. IRIGOIEN, A., 1962, "Dos cartas de Juan Carlos de Guerra a R. M^º de Azkue sobre el manuscrito de la obra "Acto para la Nochebuena" de Pedro Ignacio de Barrutia, y sobre poesías de la misma procedencia", *Euskera*, Bilbao, 354-355.

23. AZKUE, R. M., 1911, *Ortzuri*, opera. Bilbon 1909-1910. Paris, Macon, Protat frères.

niaz, ez da, beraz, bi hizkuntzak nahasirik emana, baizik eta bakoitza bere aldetik.

Parisen argitaratu zen Protat anaien moldiztegia, eta Julio de Urquijok zuzentzen zuen *RIEV*-en ere agertu zen V. alean, 1911an, 102-159 orrialdeetan. Bizkaiko itsasoan dagoen Mendiriko herrian gertatzen da honen ixtorioa, eta gipuzkeraz idatzia dagoenez eta Getari herria aipatzen denez, eman dezagun hemen edo aldameneko itxas herri batean kokatzen direla gertakizunak.

Tragedia baten aurrean aurkitzen gara, zeren Basili, edo Ortzuri “La de los blancos dientes” oin-ohar batean itzultzen duen bezala, Teles edo lleder arrantzaleaz maitemindurik dago, baina hau itsasoan ekaitz batek eramango du, Kontze, Minzorrotz gaitzizenez, “La de la lengua afilada” oin-oharrez, gaiztoak botatako madarikazio baten ondoren. Honek Laitiz pilotuarekin ezkondu nahi du, baina hau Ortzuriz maitemindurik honekin ezkonduko da. Neskaxa hau, ordea, burutik joana dago, maitea galdu izanak sortu oinazez. Azkenean Laitizek Minzorrotz harkaitzetan behera jaurtikitzen du, itsasoari begira intzirika esaten duelarik: *Ora Txerrenen alaba Aitarengana jeisten...*

Hiztegi kontuekin beti kezkatuak Azkuek libretoaren amaieran emandako bigarren eranskinean hiztegia agertzen ez diren hitzen zerrenda, hala nola gipuzkeraz at, goi- nafarreratik, bizkaieratik, behe-nafarreratik, lapurteratik eta zubereratik ere hartutako zenbait hitz ematen digu. Baita ere adizkera gutxi ezagunak. Noski, purismoak, garbizaletasunak edo berak geroago izendatzen zuen bezala txukuneriak eta adizkera sintetikoak irakurketa zail egiten dute, eta zer esanik ez hori bera kantuz emanez gero.

Bestalde, aitortu behar da baduela kostumbrismoaren eraginik Mendiriko giroa agertzerakoan eta Domingo Agirrek idatzitako *Kresala* (1906) eleberriarekin baduela parekotasunik ezin uka.

Arriaga antzokian estrenatu zenean 1911ako ekainaren 13an lehen ekitaldia soilik antzeztu zen *Itsasora* izenburuaz eta Jesus Guridi zuzendari zuelarik orkestrak. Garaiko *La Gaceta del Nortek* honela komentatu zuen opera hau:

Gai asko datoz Ortzuri'ren musikan, antzez-lagunai dagozkienak batzuk, eta sentipenak, gogo egoerak eta gertakariak adierazten dituztenak, beste batzuk. Badira errikoiak ere, ta auen artean gogorazi dezagun arrantzaleen doiñua. Gai otaz Azkue'k ereslan interesgarria osatu du, eta barnean duen berritasunak zurtuta bezela utzi ditu entzuleak. Melodi ta doiñuak, ia denak, belaska ta tristuraz beteak dira; baiña Azkue jaunak, bere lanean, itzalgarriro erabilli ditu, beren ixuririk galdu gabe, liliponpox eta eres-ikoti artean troxaturik. Adigarri zan, batez ere, abesbatzen musika bete ta dardargillea: oso txalotuak izan ziren²⁴.

24. ONAINDIA, S., 1984, *Euskal Literatura III*. Bilbao, 79-80.

Gortazar kritikari famatuak ere bere *Revista Musical* izenekoan honela epaitzen zuen adiskidearen obra:

Son [...] las ideas, que a veces alcanzan una concisión y un vigor expresivo que hace pensar en Wagner, las que avaloran la producción del señor Azkue, y éstas brillarían incomparablemente si no estuvieran enturbiadas muy a menudo por el incesante movimiento contrapuntístico²⁵.

Dudarik gabe opera-tragiko hura baino maiteago izan zutela bilbotarrek 1910ean estrenatuak izan ziren Usandizagaren *Mendi-mendiyan*, eta Guridiren *Mirentxu*, alaiago, errazago eta samurberago aurkitu baitzituzten.

Azkuek bere itxaropen guztiak *Urlo* operan ezarri zituen, zein Zarautzko Euskal Jaletara aurkeztu zuen *Gainzabalgo eiztariak* titulatuz eta saria irabaziz.

Bi edizio ezberdin bederen izan zituen, bata libretoarena euskaraz eta gaztelaniaz, eta bigarrena musikaz lagundua hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta alemanez.. Azken bertsio hau Jose M^e Arroita-Jauregi eta Melania Fischer andereñoak eginga Alemanian argitaratu zen 1914ean, Zubiriako Kondeari dedikatua. Bitxia da nola euskal bertsioa itzultzen duen Azkuek. Adibidez, tituluan euskaraz *opera* hitza besterik ez da ematen, gaztelaniaz *comedia lírica*, eta alemanez *komische oper*. Halaber Hirugarren ekitaldi hasieran ematen *duenean Loa, loa, txuntxurrun berde kanta*, gaztelaniaz beste erara itzultzen du eta honako oin-oharra ematen: *El autor no ha traducido las palabras, pareciéndole las originales muy modestas para tan linda melodía; y como más acomodadas ha escrito a este objeto esos versos castellano*. Itzulpenean "azúl empíreo" eta horrelako garaiko kursileriak ageri ziren.

Gaia hauxe: Urlo jauntxo aberats bat da Luziren alaba Txomekaz maite-mindurik dagoena. Honekin enamoratua dago ere Anton baserritar txiroa. Urlok, ehiztarien buru denak, mendekioz Anton lapurketa salaketa faltsuaz kartzelara igortzen du. Azkenean eta hirugarren ekitaldian Txomeka eta Anton, kartzelatik atera dena ezkontzen dira eta Ehiztarien batzokia, non bere lehendakaria Urloren argazkia zintzilikatutik zegoen desegiten da.

Gipuzkeraz idatzia, gaurko aroan kokatua, Gaintzabalgo lekuan, hain zuzen. *Ortzurik Kresala* oroitarazten bazigun, *Urlok Garoa*, baina ezberdintasun nabarmenak ere badira opera eta eleberriaren artean.

Don Resuk Bartzelonako orkesta ekarri zuen Lamote de Grignon zuzendari zelaririk. *Euskeria* orfeoia abestu zuen. Eszenografia Eloi Garairena. Estreinaldiko eguna 1914ko maiatzaren 29a.

Ez zuen opera honek sortzaileak espero zuen arrakastarik izan. Bere adiskide Gortazar kritikoak zioenez. Ortzurirekiko aurrerakuntzak ikusten ziren,

25. BAGÜES, J., 1984, "La ópera en Euskal Herria", *X Festival Internacional de Música y Danza de Asturias*. Oviedo, 121.

konposizio askeagoa, baina akatsak ere bai: melodia jaioberriak garapenik gabe hiltzen ziren. *Euskadik* honakoa komentatzen zuen ere:

*Naspil leiza batean bezela durundu dagi orkestak. Nun dago melodi lerroa? Geure kautan esan dugu: au ezta bein bakarrik entzutekoa. Berriz ere entzun bearako*²⁶.

Hiru emanalditan edo xahututako diruak errekuperatzeko asmotan zen, baina hain izan zen frakasoia estreinaldia ez zirela ausartu berriro jartzera, eta Azkuek aitortzen zuenez geroago, 25.000 pezetako galera izan zuen. Egon zen, bada, ondorioz dena pikutara bidaltzeko asmoz eta jesuita sartzekotan. Honela Loiolarako bidean zihoala Txomin Agirreri egin zion bisita Zumaian, eta honek komentzitu zuen, eta Bilbaorako itzulia hartua zuen.

Gerra bukatutakoan saiatu zen berriro bere operaren bat taularatzen baina ez zuen izan saio honek ondorio baikorrik.

Utzi zion, bada, Don Resuk operak idazteari eta *Euskalerriko Yakintza* obrari heldu zion, denon zorionerako. Halere egin zuen beste saiotxo bat antzerki munduan 1917an, haurrentzako zarzuelatxo bat idatziz, hau da, *Aitaren bildur* ²⁷ 'sainete lírico vasco'.

Tolosan kokatua eta beraz, gipuzkeraz idatzia dago. Haur solasez, kanitez eta ixtorioz jantziak daude. Hauen artean bada ipuintxo bat kanta ere bezala ageri dena, non zeruan Pedro ari den mozkor batekin hitzegiten. Honentzat ez da izango zeruko atea idekirik, eta infernura bidaliko dute.

Hemen ageri da ere Don Resuren txukuneriako joera, zeren aldatzen ditu hitzak eta adizkerak eta ezartzen herri kontu/ kantuak zioenean *ago* ordez *ari aiz*, *infernura* ordez *suleizera*, eta *esperantza* ordez *itxaropena*. Halaber eta sortzaile ere denez bigarren estrofa bat asmatzen du.

Eta amai dezadan. Ni zertxobait saiatu naizen arren Euskal Antzertiaren Historia argitzen eta honen inguruan zenbait liburu argitaratzen, egiteko dago oraindik hain aberatsa izan zen 1876-1936 urteetako emaitza euskaltzalearen azterketa sakon bat. Bide horretan beude nik gaur hemen esandakoak Azkueren omenez, zein izan zen Bizkaia aldean euskal antzertiaren eta euskararen zuzi, zutabe eta sostengurik handiena.

Milesker zuen arretagatik.

26. ONAINDIA, S., 1974, *Euskal Literatura III*. Bilbao, 80.

27. AZKUE, R.M., 1917, *Aitaren bildur*. Sainete lírico vasco. Bilbao. Garmendia.